

ENPRESEN konfiantza

2024KO 1. HIRUHILEKORAKO
AURREIKUSPENAK

Ikerketa Departamentua – LABORAL Kutxa




LABORAL
kutxa

2024KO 1. HIRUHILEKORAKO AURREIKUSPENAK




0 | INGURUNEA

LABORAL Kutxak Enpresen Konfiantzari buruzko Inkesta egin die Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat enpresari, 2024ko lehen hiruhilekorako dituzten aurreikuspenen berri izateko. Emaitzek erakutsi dutenez, aurreko hiruhilekoan baino ezkorragoa da ingurune ekonomikoa. Zehazki, enpresen % 7,7k uste du egoera hobetu egingo dela oraingo hiruhilekoaren aldean; % 46,8k uste du bere horretan jarraituko duela, eta, beraz, % 45,5ek, okerrera egingo duela.




1 | FAKTURAZIOA

FAKTURAZIOAri dagokionez, berriz, **aurreko hiruhilekoan** baino ikuspegi ezkorxeagoa dute enpresek 2024ko lehen hiruhilekoari begira. Zehazki, galdetutako enpresen % 18,9k uste du fakturazioa hobetu egingo dela; % 55,9ren iritziz, antzekoa izango da, eta % 25,2k okerragoa izango dela aurreikusten du.




2 | JARDUERA

JARDUERARI dagokionez, 2024ko lehen hiruhilekoan hobera egingo du % 9,9ren iritziz, eta % 30,6ren arabera, okerrera. Laginaren gainerako % 59,5ek, beraz, berdin jarraituko duela pentsatzen du.




3 | ESKABIDEAK

Erantzunok ikusita, zalantza hau sortzen da berehala: zer portaera izango dute salmenten kopuruek eta prezioek, hau da, fakturazioaren eta jardueraren inguruko aurreikuspenen oinarrian dauden gakoek? Ildo horretan, eskabideek behera egingo dutela eta prezioak igo egingo direla espero da. Ondorengo irudian ageri denez, inkestari erantzun diotenen % 16,2ren iritzian, eskabideen bolumena handitu egingo da, eta % 24,8ren ustez, txikitu. Enpresen % 59ren iritziz, ordea, bolumena hiruhileko honetakoaren antzekoa izango da.




4 | PREZIOAK

Era berean, prezioei dagokienez, honela banatzen dira emaitzak: enpresen % 21,6k uste du igo egingo direla, eta % 65,3k, bere horretan jarraituko dutela.



5 | ERRENTAGARRITASUNA


Eragiketen ERRENTAGARRITASUNARI buruzko aurreikuspeni erreparatuta, erantzunen % 86,5en arabera «txikiagoa» edo «berdina» izango da; enpresen % 13,5ek soilik espero du etekin handiagoak lortzea.



6 | INBERTSIOA


Orain arte aztertutako datuek ikuspegi ezkorragoa erakusten dute hirugarren hiruhilekorako, aurrekoarekin alderatuta. Hala, jarraian ikusiko dugunez, badirudi enpresek ez dietela inbertsio-planei bultzadarik emango.

INBERTSIO-bolumenari dagokionez, enpresen % 10,8k uste du gora egingo duela **2024ko lehen hiruhilekoan**. % 18,9ren iritziz, berriz, behera egingo du inbertsio-bolumenak. Hortaz, galdetutako enpresen % 70,3 inbertsioek berdin jarraituko dutelakoan dago.



7 | ENPLEGUA

Azkenik, enpresen % 81,5ek erantzun du ENPLEGUAn ez duela aldaketarik espero; % 5,9k langile-taldea handitzeko itxaropena du, eta % 12,6k guztiz kontrakoa egitea aurreikusten du.




2024KO BESTE ADIERAZLE BATZUK



8 KONFIANTZA-INDIZEA ETA ESPORTAZIOEN BILAKAERA


Aurreko adierazleak —inguruneari buruzko iritzia izan ezik— gehitu eta haztatzen baditugu, **45,9ko** konfiantza-indizea lortuko dugu. Hau da, aurreko hiruhilekoko baino txikiagoa (**49,5**koa izan baitzen). Beraz, enpresek ikuspegi ezkorrekin jarraitzen dute ekonomiaren bilakaerari buruz, **2024ko lehen hiruhilekoari** begira. Gainera, indizearen balioa 50etik behera dagoenez, jarduera uzkurtze-eremuan dago, eta beste eremu geografiko interesgarri batzuetan lortutakoaren antzekoa da. Espainian, esaterako, 46,3ko datua lortu zen azaroan, eta Eurogunean, 44,2koa, hil berean.

Amaitzeko, inkestako beste gai batzuetan jasotako emaitzak aurkeztuko ditugu; ez dira aurretik azaldutako indizean sartzen. Azken urteko ESPORTAZIOen bilakaerari dagokionez, inkestaren % 16,3k uste du hobera egin duela, eta % 32,6k txarrera egin duela, % 51,2koa iritzia leporoko salmentek bere horretan jarraitzen duela.




9 BERRIKUNTZA ETA I+G ALORREKO EKIMENAK

Azken urtean BERRIKUNTZAra edo I+Gko EKIMENetara bideraturiko salmenten ehunekoari dagokionez, inkestatuen % 83,8 balio minimoetan kokatzen da: % 0 eta % 1 artean. Bestalde, % 4,5ek salmenten % 5 baino gehiago bideratzen du arlo horietara.




10 | BEZEROEI KOB RATZ EKO EPEAREN BILAKAERA

Inkestari erantzun diotenen % 78,8ren ustez, bezeroei KOB RATZ EKO EPEAn ez da aldaketarik egon azken urte honetan, eta, enpresen % 16,2ren esanetan, epea luzatu egin da. Hala, enpresen % 5ek soilik erantzun du kobratzeko epea laburtu egin dela.



11 | BANKUEN FINANTZAKETA ESKURATZEKO ERRAZTASUNA


Amaitzeko, inkestaturen % 77k erantzun du bankuen FINANTZAKETA ESKURATZEKO AUKERAK berdin jarraitu duela azken urtean. Gainerako enpresen artean, % 5,9k dio hobetu egin dela, eta % 17,1ek, lehen baino zailagoa dela finantzaketa lortzea.




12 | NEXT GENERATION FUNTSAK

Next Generation funtsek industria-sarea berronertzeko duten garrantzia ikusita, beste bi galdera erantsi dira inkesta honetan: alde batetik, galdetutako enpresek funts horiek ezagutzen ote dituzten eta, bestetik, eskuratu ote dituzten. Ikus daitekeenez, enpresen % 72,9k ezagutzen du plana, baina % 17,1ek bakarrik eskuratu ditu funtsak.

Next Generation funtsei buruzko ezagutza



Next Generation funtsak eskuratzea






2023AN ADIERAZLEAK IZAN DUEN
BILAKAERAREN LABURPEN-GRAFIKOA

12 ENPRESEN AURREIKUSPENAK

Grafiko honetan, aztertu ditugun azken 3 hiruhilekoetako aurreikuspenen adierazle partzialen eta osoen balioak ikus daitezke.



Fitxa teknikoa eta metodologia

2023ko azaroaren 2tik 30era EAEn kokatutako 222 enpresari egindako inkesta
